

# Mateo efektua eta adina: pentsioen paradoxa



Gorka Moreno  
Márquez  
EHU-KO IRAKASLEA

**B**ismarck izan zen XIX. mendean gaurko pentsio sistemaren eredu sortu zuena, belaunaldien arteko elkartasunean oinarriturik hain zuzen ere. Ekuazioa oso sinplea da, enplegua duten gazteen egoera ekonomikoa adinekoena baino hobea denez, euren egindako ekarpenen bidez ordainduko dira adinekoen pentsioak.

Adin piramidean edota bizi esperantzaren eraginak alde batera utzita –ez dira bigarren mailakoak–, gaur egun neke zantzu nabarmenak azpimarratu ditzakegu eredu honen baitan, are gehiago jubilazio-adina eta lan-adinean dauden belaunaldien arteko ezberdintasunak inoiz baino handiagoak direnean. Gaurko jubilatuak dira, oro har, babes-maila gehiago izan dutenak eta urte luzez kotizatzeke aukera izan dutenak –jubilazio ez kontributiboa eta alargun pentsioak, noski, beste gauza bat dira–. Guzti horren ondorioa da jubilazio horien zenbatekoa altua izatea adineko askorentzat. Piramidearen bestaldean populazio gaztea dugu, lanaren prekarizazioa pairatzen duena eta sarritan soldata baxuak jasotzen dituena. Azken urteetako krisiak egoera hori areagotu baino ez du egin, adinekoek babes-maila altuagoa izan dute eta krisia gehien pairatu dutenak lanean eta egoera prekarioan dauden langileak izan dira.

Testuinguru honetan *eredu bismarckianoak* ondorio erabat kontraesankorrak lortzen ditu:

soldata baxuak eta kotizazio luzeak edukitzeko arazoak dituzten gazteak dira gaurko pentsionistei jubilazio altuak ordaintzen dizkietenak. Erabat paradoxikoa den egoera alegia. Argi eta garbi gizarte politiketan hainbatetan erabiltzen den *Mateo efektuaren* aurrean gaude, apostolu hark Biblian aipaturiko esaldiari jarraituz: “Daukanari emango zaio eta ez daukanari duen apurra kenduko zaio”.

Ez naiz ni izango pentsioen kopurua jaitsi egin behar denik esango duena, baina uste dut adibide horrek gogoetarako beta ireki beharko lukeela hainbat gizarte politikaren kasuan. Gaur egun adina ez dago beti zaurgarritasun ekonomikoari lotuta, batzuetan bai, baina hainbatetan ez.

Hortaz, garraio publikoetan egiten diren adinaren araberako deskontu orokorrak agian ez dira hain justuak. Badakit neure burua arriskuan jarri dezakedala ere, baina errealitate hau baliagarria zaigu beste hainbat programatarako... Imserso-ren bidaiak esaterako, ez baitauka logika handirik 1.700 euroko pentsioa jasotzen duen pertsonak batek merke baino merkeagoa bidaiatzea eta langile pobreak diren familiak hondartza zer den ez jakitea. Badakit eztabaida honek beste erpin batzuk ere badituela eta sinpleegia dela hemen botatakoa, baina eztabaida plazaratzea egokia delakoan nago. ■

## Bortizkeria matriuskak



Miren Artetxe  
BERTSOLARIA  
@mirenartetxe

**Z**abaldun matriuska. EFE agentziaren berria. Lerro-burua: “*Cantabria* espainiar ontziak itsasoan aurkitutako 26 gorpu lehorreratu ditu”. Testua: “Ontziak Italiako Salerno hirian porturatu ditu 26 emakumeren gorpuak, itsasoan erreskatatutako beste 400 immigrante eta errefuxiatuarekin batera”.

Emakumeak izateak ez du, antza, lerro-bururik merezi (eta kurioski, testuan immigrante eta errefuxiatuak bereizteak bai). Salernoko prefetaren azalpenak jasotzen ditu berriak: hildako emakumeak, ziur aski nigeriarrak, zodiak batean zihoazen gizonekin batera, eta ontzia hondoratzean, emakumeek, zoritxarrez, ahule-

nak izaki, ondoriorik latzenak jasan behar izan dituzte.

Biolentzia biolentziaren baitan. Haien jatorrizko herrietan gure eraginez sorturiko gatazketatik ihesi doaz. Mugak itxi dizkiegulako doaz ihesi baldintzarik ziurgabeenetan. Eta ziurgabetasun horrek lasta bilakatzen dituen lehenak dira emakumeak.

Esan dutenez, gorpuak aztertuak izango dira, eta biolentzia zantzurik aurkitzen badute, autopsia egingo omen zaie. Autopsiak nekez esango du, ordea, ahulak zirelako hil ziren, ala uretan besteek baino denbora gehiago zeramaten *hil zirenean*. Dena den, ez dugu autopsien berri izango.

Itxi matriuska. ■